## Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 21/2016 FORU DEKRETUA, otsailaren 16koa. Honen bidez, Enpresa Berritzaileak Sortzeko Programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2016. urterako.**

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitatezko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresen artean lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Estrategia integral bat jarri da martxan horretarako, bost jarduketa-ardatz hauetan oinarritua: kanporako proiekzioa; ekintzailetza; industria eta lehiakortasuna; talentua, eta lurraldeen arteko oreka.

Egungo enpresen lehiakortasuna eta enpresa berrien sustapena funtsezko osagaiak dira Bizkaiko ekonomiak egun dituen erronkei aurre egin ahal izateko, batez ere lana sortzeari eta lanari eusteari begiratzen badiegu.

Garrantzizko industria-ehun bati eutsiz, hazkundean oinarritutako ekonomiarantz bideratutako eraldaketa sakon bat izan du Bizkaiko ekonomiak azken hamarkadetan, sektore finkoa du zerbitzu aurreratuetan, eta, aldi berean, apustua egin du goraka doazen etorkizun oparoko sektoreetan dibertsifikatutako ekonomia baten alde.

Bizkaian enpleguaren sorrera eta industria- eta enpresa-sarea sustatzeko xedearekin —eta, beraz, aurrerapen ekonomiko eta soziala lortzeko xedearekin—, Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza ematen die lurralde horretan garatzen diren eta helburu horiek dituzten programei.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak enpresa berriak eta, batez ere, sortzaileak Bizkaian aberastasuna eta enplegua sortzea bermatzeko funtsezko tresna gisa sustatzeko duen konpromisoa argi eta garbi azaltzen da Enpresa Berritzaileak Sortzeko Programa honetan, hain zuzen ere.

Gure lurraldeen garapena eta hazkundea ahalbidetuko duen enpresa-ehun dinamiko, sortzaile, berritzaile eta iraunkorra izatearren, Bizkaiko Foru Aldundiak sendotu egiten du enpresa-proiektu berriak garatzearen alde egiten duten enpresa eta pertsonekin duen konpromisoa.

Hori dela eta, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak Bizkaian enpresa berritzaileak sustatzeko programa zehatz bat garatu behar dela uste du, 2016ko ekitaldian, Enpresa berritzaileak sustatzea izenekoa, hain zuzen ere.

Enpresa berritzaileak sortzeko laguntza emateko jarduerei dagokienez, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak egindako ahalegina indartu egiten da Beaz, S.A.U., Seed Capital de Bizkaia, S.A. eta Seed Capital Bizkaia Mikro sozietate publikoek sustatutako jarduerei esker.

## Departamento de Desarrollo Económico y Territorial

**DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia 21/2016 de 16 de febrero, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria para el año 2016 del Programa de Creación de Empresas Innovadoras.**

La misión del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello se ha puesto en marcha una estrategia integral para hacer efectivo este compromiso basada en cinco ejes de actuación que aúnan proyección exterior, emprendimiento, industria y competitividad, talento y equilibrio territorial.

La mejora de la competitividad de las empresas existentes y la promoción de nuevas empresas son elementos claves para afrontar los retos que se presentan a la economía de Bizkaia, con especial atención a la creación y mantenimiento del empleo.

Manteniendo un importante tejido industrial, la economía de Bizkaia ha experimentado en las últimas décadas, una profunda transformación hacia una economía basada en el conocimiento, con un consolidado sector de servicios avanzados, apostando al mismo tiempo por una economía diversificada en sectores emergentes y de futuro.

Con el objeto de impulsar la generación de empleo y la promoción del tejido industrial y empresarial de Bizkaia, y en consecuencia el logro de un progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia viene apoyando distintos programas que se desarrollan en este Territorio, encaminados a la consecución de estos fines.

El compromiso del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial con la promoción de nuevas empresas, y específicamente con aquellas de carácter más innovador, constituye un instrumento clave para garantizar la creación de riqueza y empleo en Bizkaia y se manifiesta de forma clara en el presente programa de Creación de Empresas Innovadoras.

Conscientes de la importancia de contar con un tejido empresarial dinámico, creativo, innovador y sostenible que permita el desarrollo y crecimiento de los territorios, la Diputación Foral de Bizkaia refuerza su compromiso con las empresas y personas emprendedoras que apuestan por el desarrollo de nuevos proyectos empresariales.

Por ello, el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial considera necesario desarrollar en el ejercicio 2016 un programa específico, denominado Creación de empresas innovadoras, para el fomento de empresas innovadoras en Bizkaia.

En el conjunto de actuaciones de apoyo a la creación de empresas innovadoras, el esfuerzo desarrollado desde el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial se ve reforzado a través de las actuaciones impulsadas desde las Sociedades Públicas Beaz, SAU, Seed Capital de Bizkaia, S.A. y Seed Capital Bizkaia Mikro.

cve: BAO-BOB-2016a034

Aurrerapen ekonomikoa eta soziala lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du emakume eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko aurrerapausoak ematea, eta, bide horretan, hainbat urte daramatza berdintasunaren arloan lanean. Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako IV. Foru Planean 2012-2015 eperako diseinatutako estrategiak eta jarduketak biltzen dira, arlo horretan sortzen diren erronkei erantzun ahal izateko. Beharrezkoa da lanean jarraitzea emakume eta gizonen arteko benetako berdintasuna lortzearren, eta, ondorioz, 2016ko ekitaldian Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako IV. Foru Plana jarriko da indarrean.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasunerako Foru Planaren barruan berdintasunerako politikak ezartzeari buruzko plan hori ezartzeko duen konpromisoarekin bat, eta Bizkaia Sortzailea programan genero-ikuspuntua sartzeko asmoz, inpaktuaren aldez aurreko ebaluazioa egin da eta beharrezkoak ziren neurriak hartu dira. Hori guztia, betiere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 18. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraiki.

Hori dela bide, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2016ko otsailaren 16ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

XEDATU DA:

I. TITULUA

**XEDEA, PERTSONA ETA ERAKUNDE ONURADUNAK**

**1. artikulua.—*Xedea***

Foru dekretu honen xedea da 2016. urteko Enpresa Berritzaileak Sortzeko Programaren barruan jasotako diru-laguntzen oinarri arautzaileak eta lehen deialdia onestea. Laguntza horiek Bizkaiko enpresa berritzaileen sorkuntza sustatzeko sortu dira.

Programa horrekin, helburu hauek lortu nahi dira:

— Ekintzailetza eta enpresa-espiritua sustatzen eragin positiboa duten jarduerak egitea, testuinguru sozial, kultural eta ekonomikoan eta ezagutzan jardunez.

— Arlo akademikoan eta teknologikoan, enpresa berriak sortzearen aldeko sentsibilizazioa zabaltzea.

— Pertsona ekintzaileei erraztea enpresa berria abiarazteko informazioa eta laguntzak; horretarako, enpresa bat abiarazteko diru-laguntzei buruzko informazioa eta behar diren laguntza eta aholkua emango zaizkie.

— Barne ekintzailetza bultzatzea, zelan eta prozesu egituratuen bidez; prozesuok bide eman behar diete enpresei, euron gaitasunak zabaltzeko; horretarako, negozio-unitate berriak sortuko dituzte, eta sustatuko dute entitatea osatzen duten pertsonen talentu ekintzailea.

— Berrikuntza eta zientzia-sistemaren eragileekiko lankidetza sustatzea; izan ere, eragile dira ideia berriak eta enpresa berri bihur daitezkeen proiektuak sortzeko.

Helburu horiek lortzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko sailari atxikitako Beaz, S.A.U. foru sozietate publikoaren lankidetza izango du.

Enpresa Berritzaileak Sortzeko 2016ko Programa bi jarduera-arlo hauen bidez gauzatuko da:

— 1. arloa. Enpresa-proiektu berritzaileak garatzea.

— 2. arloa. Enpresa berritzaile berriak.

Para lograr el progreso económico y social, la Diputación Foral de Bizkaia considera imprescindible avanzar en la consecución real y efectiva de la igualdad de mujeres y hombres y para ello lleva numerosos años trabajando en materia de igualdad. El IV Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Bizkaia recoge las estrategias y actuaciones diseñadas para el horizonte temporal 2012-2015 para poder dar respuesta a los retos que se plantean en este ámbito. Siendo necesario continuar el trabajo desarrollado para lograr la efectiva igualdad de mujeres y hombres, en el ejercicio 2016 entra en vigor el V Plan Foral para la igualdad de mujeres y hombres.

Conforme al compromiso de la Diputación Foral de Bizkaia en el marco del Plan Foral para la Igualdad de mujeres y hombres en Bizkaia, referido a la implementación de políticas de igualdad, y con el fin de incorporar la perspectiva de género al Programa de Creación de empresas innovadoras, se ha realizado la correspondiente evaluación previa de impacto, adoptándose las medidas pertinentes; todo ello de conformidad con lo dispuesto en los artículos 18 y siguientes de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de mujeres y hombres.

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral, en reunión de 16 de febrero de 2016.

SE DISPONE:

TÍTULO I

**OBJETO, PERSONAS Y ENTIDADES BENEFICIARIAS**

**Artículo 1.—*Objeto***

Constituye el objeto del presente Decreto Foral aprobar las bases reguladoras y la primera convocatoria de las subvenciones recogidas en el Programa de Creación de Empresas Innovadoras del año 2016, destinadas a fomentar la creación de empresas innovadoras en Bizkaia.

Con este programa se pretende alcanzar los siguientes objetivos:

— Desarrollar actuaciones que incidan positivamente en el fomento del emprendimiento y del espíritu empresarial actuando sobre el contexto social, cultural, económico y del conocimiento.

— Sensibilizar en el ámbito académico y en el tecnológico la creación de nuevas empresas.

— Facilitar el acceso de las personas emprendedoras a la información y las ayudas relacionadas con la puesta en marcha de una nueva empresa, canalizando toda la información sobre ayudas, apoyo y acompañamiento necesario para ello.

— Impulsar el intraemprendimiento a través de procesos estructurados que permitan a las empresas extender sus capacidades mediante la creación de nuevas unidades de negocio, fomentando el talento emprendedor de las personas que conforman la organización.

— Fomentar la colaboración con los diferentes agentes del sistema de innovación y ciencia como elemento motor de nuevas ideas y proyectos susceptibles de convertirse en nuevas empresas.

Para la consecución de dichos objetivos, la Diputación Foral de Bizkaia contará como entidad colaboradora con la sociedad Beaz, S.A.U., sociedad pública foral adscrita al Departamento de Desarrollo Económico y Territorial.

La puesta en práctica del Programa de Creación de Empresas Innovadoras 2016 se llevará a cabo a través de dos áreas de actuación:

— Área 1. Desarrollo de proyectos empresariales innovadores.

— Área 2. Nuevas empresas innovadoras.

cve: BAO-BOB-2016a034

**2. artikulua.—*Pertsona eta entitate onuradunak***

Honako hauek izan daitezke dekretu honetan arautukako diru-laguntzen onuradunak:

1. 1. arloan:

a) Enpresa berritzaile berrien sustatzaile diren pertsona fisikoak.

b) Enpresa berritzaile berrien sustatzaile diren enpresak.

c) EJZn alta emandako dataren arabera 2014ko urtarrilaren 1a aurretik jardunean hasi ez diren enpresa berritzaile berriak. Enpresa horiek merkataritzako sozietate moduan edo kooperatiba moduan eratuak izan behar dira.

d) Lehendik diren enpresak, 10 lanpostutik gora dituztenak eta negozio-unitate berriak sustatzen dituztenak, beti ere BEAZ, SAUekin batera barne ekintzailetzarako diseinatutako prozesuen emaitza badira.

2. 2. arloan:

Eskabidea aurkeztean honako betekizunak betetzen dituzten enpresa berritzaileak:

a) Legez eratuta egotea, merkataritzako sozietate moduan edo kooperatiba moduan.

b) 2014ko urtarrilaren 1az gero EJZn alta emanda izatea lehen aldiz.

c) Lanaldi osoko bi lanpostu edukitzea.

Kontratatutako pertsonez gain, plantillakotzat joko dira enpresaren jarduerari atxikita dauden baina euren izaeragatik Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta emanda egon ezin duten langile autonomoak.

Horrenbestez, langile bat enpresaren jarduerari atxikitako langile autonomotzat jotzeko, enpresa horren nomina izan beharko du edo autonomoen ordainagiria enpresak ordaindu beharko dio.

d) Aurretik onuraduna ez izatea Enpresa Berritzaileak Sortzeko programaren 2. arloan.

3. Horrez gainera, 1. arloko zein 2. arloko pertsona eta entitate onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

e) Sozietatearen helbidea, zerga-helbidea eta ekoizpen-zentro bat Bizkaiko Lurralde Historikoan izatea edo hartan erroldatuta egotea.

f) Zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta diru-laguntzak itzultzearen ondoriozkoak eguneratuta edukitzea.

g) Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana.

h) Foru administrazioak ematen dituen diru-laguntzei buruzko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 12. artikuluak ezarritako ezein egoeratan sartuta ez egotea.

e, f eta g baldintzak eskabidean jasotako informazioaren arabera egiaztatuko dira. h baldintza betetzen den edo ez egiaztatzeko, enpresak egindako eta Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko entitate eta pertsonen Erregistroko (ESEPE) izen-emateko eskabidean jasotako aitorpenari begiratuko zaio.

Arlo bietan baldintza guztiak bete behar dira eskabidea aurkezten den unean, ordainketak egiten diren unea arte mantendu, eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritakoaren arabera kasu bakoitzerako zehazten diren inguruabarrak gertatzen direnean ere eutsiko zaie (arau horrek Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen du).

4. Dekretu honen ondorioetarako, 1. arloko nahiz 2. arlorako:

Honako ezaugarri hauek dituzte enpresa berritzaile berriek: produktu, prozesu edo zerbitzuetan elementu berritzaileak sartzen dituzte Bizkaiko merkatura; aberastasuna sortzeko aukera handia dute; balio erantsia ematen dute; bideragarriak dira, eta Dekretu honen xedeak lortzen laguntzen dute.

Teknologia edota ezagutza berriaren elementu bereizgarriak enpresaren edo talde sustatzailearen baitakoak izan behar dira.

**Artículo 2.—*Personas y entidades beneficiarias***

Podrán acceder a las subvenciones reguladas por este Decreto, las siguientes personas y entidades:

1. En el Área 1:

a) Las personas físicas promotoras de nuevas empresas innovadoras.

b) Las empresas existentes promotoras de nuevas empresas innovadoras.

c) Las nuevas empresas innovadoras, que no hayan iniciado su actividad con anterioridad al 1 de enero de 2014, según fecha de alta en el IAE. Dichas empresas deberán estar constituídas como Sociedad Mercantil o Cooperativa.

d) Las empresas existentes con más de 10 puestos de trabajo que sean promotoras de nuevas unidades de negocio, resultado de procesos de intraemprendimiento diseñados conjuntamente con BEAZ, SAU.

2. En el Área 2:

Las nuevas empresas innovadoras que cumplan los siguientes requisitos a fecha de presentación de la solicitud:

a) Estar legalmente constituidas como sociedad mercantil o cooperativa.

b) Estar dado de alta por primera vez en el IAE con posterioridad al 1 de enero de 2014.

c) Tener dos puestos de trabajo a jornada completa.

Se considerará perteneciente a la plantilla, además de las personas contratadas, el personal autónomo adscrito a la actividad de la empresa que, por su condición, no pueda estar dado de alta en el Régimen General de la Seguridad Social

En este sentido, para ser considerado personal autónomo adscrito a la actividad de la empresa, se deberá disponer de nómina o de recibo de autónomos pagado por la empresa.

d) No haber sido beneficiaria del área 2 del Programa de Creación de Empresas Innovadoras con anterioridad.

3. Las personas y entidades beneficiarias, tanto del área 1 como del área 2, deberán cumplir además los siguientes requisitos:

e) Estar empadronada o tener su domicilio social, fiscal y un centro de producción en el Territorio Histórico de Bizkaia.

f) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

g) No haber sido sancionada, administrativa o penalmente, por incurrir en discriminación por razón de sexo.

h) No estar incursa en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Los requisitos e, f y g se apreciarán en base a la información contenida en la solicitud. El cumplimiento de la condición h se apreciará en base a la declaración realizada por la empresa y contenida en la solicitud de inscripción en el Registro de entidades y personas del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial (REPPE).

Todos los requisitos, para cada una de las áreas, deberán cumplirse a fecha de solicitud, mantenerse hasta el momento de los pagos, y subsistir mientras concurran las circunstancias que en cada caso se determinen de acuerdo a lo establecido en el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

4. A efectos del presente Decreto, tanto para el área 1 como para el área 2:

Se consideran nuevas empresas innovadoras aquellas que incorporan elementos novedosos en productos, procesos o servicios en el mercado de Bizkaia, con gran potencial de generación de riqueza, que aporten valor añadido, tengan expectativas de viabilidad y favorezcan los objetivos de este Decreto.

Los elementos claves diferenciales de la nueva tecnología y/o conocimiento deberán residir en la empresa o grupo promotor.

cve: BAO-BOB-2016a034

5. Ez dira onuradunak izango:

— Zuzenbide publikoko entitateak, ondasun erkidegoak eta sozietate zibilak.

— 2. arloan, Ekintzaileltzako eta Gizarte Berrikuntzako Programaren 2. arloan, Bizkaia Digitala programan eta Bizkaia Sortzailea programan onuradunak diren entitateak.

II. TITULUA

## JARDUTEKO ARLOAK

I. KAPITULUA

### 1. ARLOA: ENPRESA-PROIEKTU BERRITZAILEAK GARATZEA

**3. artikulua.—*Xedeak eta laguntzak***

1. arlo horren bitartez, helburu hauek lortu nahi dira:

— Enpresa-proiektu berritzaile berriak martxan jartzen laguntzea. Proiektu horiek dibertsifikazio-jarduera eta teknologia berriei buruzko jarduera berriak ekarri behar dituzte Bizkaiko enpresen sarera. Proiektuok balio erantsi handia eta hazteko ahalmena izan behar dute.

— Lankidetza areagotzea Bizkaian enpresa-ekimen berrietan lan egiten duten eragileekin.

Enpresa-proiektu berrien enpresa-planak garatzeko dirulaguntzak ematen dira arlo honetan.

BEAZ, S.A.U. foru sozietate publikoak aholkuak emango dizkie lagundutako pertsona edo entitate sustatzaileei, enpresa-proiektuak aztertzen eta abian jartzen ari direnean. Besteak beste, honako alderdi hauei buruzko aholkuak emango dizkie:

— Enpresa-proiektuaren enpresa-plana egiteko laguntza.

— Barne ekintzailetzako proiektuak garatzea.

— Teknologia transferitzeko; horretarako, elkarlan-hitzarmenak egingo dira zentro teknologikoekin eta unibertsitateekin.

— Proiektua abiarazteko beharrezkoa den finantziazioa bilatzeko laguntza.

— Pertsona sustatzaileek edo hautatutako proiektuen pertsona arduradunek izan ditzaketen trebakuntza-beharretarako.

— Proiektuaren arlo ezberdinetan sustatzaileekin elkarlanean arituko diren profesionalak edo espezialista independenteak bilatzea eta hautatzeko.

— Sortutako enpresa berriak kokatzen laguntzeko.

BEAZ, S.A.U. sozietateak CEDEMI, Ezkerraldeko Enpresak Garatzeko Zentroa, S.A. enpresaren laguntza izango du.

**4. artikulua.—*Diruz lagundu daitekeen egitatea***

Enpresa berritzaile berrietarako enpresa-plana garatu eta definitzea, edo barne ekintzailetzako proiektuetarako negozio-unitate berriak garatu eta definitzea.

**5. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak***

Gastu hauek dira diruz lagun daitezkeenak, betiere enpresaren plana edo negozio-unitate berria garatu eta zehazteko beharrezkotzat jotzen badira:

— Bideragarritasun- eta merkatu-azterlanak.

— Txosten eta azterketa tekniko zehatzak.

— Jabetza intelektuala edo industriala babestea, erregistroak, ziurtagiriak eta homologazioak.

— Prototipoak.

— Azoketara bidaiak egin eta haietan parte hartzea.

— Proiektua garatzeko kanpoko aholkularitza.

BEAZ, S.A.U. sozietateak proposatuz gero, beste kontzeptu batzuk ere diruz lagundu ahal izango dira, baldin eta proiektua garatzeko beharrezkoak direla uste bada.

5. No serán beneficiarias:

— Las entidades de derecho público, las comunidades de bienes y las sociedades civiles.

— En el área 2, aquellas entidades que tengan la consideración de beneficiarias en el área 2 del Programa de Emprendimiento e innovación social, en el Programa Bizkaia creativa y en el Programa Bizkaia digital.

TÍTULO II

## ÁREAS DE ACTUACIÓN

CAPÍTULO I

### ÁREA 1: DESARROLLO DE PROYECTOS EMPRESARIALES INNOVADORES

**Artículo 3.—*Objetivos y ayudas***

Mediante esta área 1 se pretende alcanzar los siguientes objetivos:

— Facilitar la puesta en marcha de nuevos proyectos empresariales innovadores, que aporten al tejido empresarial de Bizkaia actividades de diversificación y de nuevas tecnologías, con alto valor añadido y potencial de crecimiento.

— Intensificar la colaboración con aquellos agentes que trabajan en Bizkaia en apoyo de nuevas iniciativas empresariales.

Esta área ofrece subvenciones para el desarrollo de los planes de empresa de los nuevos proyectos empresariales.

La sociedad pública foral BEAZ, S.A.U. prestará asesoramiento a las personas o entidades promotoras apoyadas, en la fase de estudio y puesta en marcha de los proyectos empresariales en los siguientes aspectos, entre otros:

— La elaboración del plan de empresa del proyecto empresarial.

— El desarrollo de proyectos de intraemprendimiento.

— La transferencia de tecnología, mediante acuerdos de colaboración con centros tecnológicos y universidades.

— La búsqueda de la financiación necesaria para la puesta en marcha del proyecto.

— Las necesidades de formación de las personas promotoras o responsables de los proyectos seleccionados.

— La búsqueda y selección de profesionales o especialistas independientes que colaboren con las personas promotoras o empresas en las distintas áreas del proyecto.

— La búsqueda de ubicación de las nuevas empresas creadas.

BEAZ, S.A.U., contará con la colaboración de CEDEMI, Centro de Desarrollo Empresarial Margen Izquierda-Ezkerraldea Enpresak Garatzeko Zentroa, S.A.

**Artículo 4.—*Hecho subvencionable***

El desarrollo y definición del plan de empresa para las nuevas empresas innovadoras o de la nueva unidad de negocio para los proyectos de intraemprendimiento.

**Artículo 5.—*Gastos subvencionables***

Serán subvencionables los siguientes gastos, siempre que se consideren necesarios para el desarrollo y definición del plan de empresa o la nueva unidad de negocio:

— Estudios de viabilidad y de mercado.

— Informes y estudios técnicos específicos.

— Protección de la propiedad intelectual o industrial, registros, certificaciones y homologaciones.

— Prototipos.

— Viajes y asistencia a ferias.

— Asesoramiento externo para el desarrollo del proyecto.

A propuesta de BEAZ, S.A.U., podrán ser subvencionables otros conceptos cuando se consideren necesarios para el desarrollo del proyecto.

cve: BAO-BOB-2016a034

**6. artikulua.—*Egiteko epea eta burutzeko betekizunak***

1. Aurreko artikuluan zehaztutako diruz lagun daitezkeen gastuak 2015eko urtarrilaren 1a eta 2017ko irailaren 30a bitartean garatu beharko dira.

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak 2017ko abenduaren 31 baino lehen ordainduta egon behar dira.

2. Entitate onuraduna pertsona fisikoa edo enpresa berria bada, BEAZ, S.A.U. entitate laguntzaileak erabakiko du, kasuan-kasuan, hark antolaturiko, enpresa-proiektua garatzeko beren-beregi diseinaturiko prestakuntza-lantegietan parte hartzearen egokitasuna.

3. Enpresa-plana garatu ostean, enpresa berria eratu eta abiarazteko, enpresa horrek honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Sozietatearen helbidea eta zerga-helbidea Bizkaian izatea.

b) Ekoizpen-zentro nagusia Bizkaian ezartzea.

c) Merkataritzako sozietate edo kooperatiba moduan eratzea. Ez dira onartuko ondasun-erkidegoak edo sozietate zibilak.

4. Enpresa berria sustatzen duen pertsonak edo enpresak parte hartu behar du, enpresa berriaren kapital sozialean.

**7. artikulua.—*Diru-laguntzaren zenbatekoa***

Balorazio-irizpideak ezarri ondoren lortutako puntuazioaren arabera ezarriko da diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa:

| Balorazio-irizpideak ezarri ondoren lortutako puntuazioa | Diru-laguntzaren gehieneko portzentajea (%) | Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa (eurotan) |
|---|---|---|
| 50 eta 59 puntu bitartean | 80 | 20.000 |
| 60 eta 69 puntu bitartean | 80 | 30.000 |
| 70 eta 79 puntu bitartean | 100 | 40.000 |
| 80 puntu edo gehiago | 100 | 60.000 |

Diru-laguntzaren zenbatekoa beherazko unitate hurbilenera biribilduko da.

Jarduera noiz egiten den kontuan hartu gabe, elkarren ondoko aurrekontu-ekitaldi bi edo gehiagoren kontura adjudikatu daitezke diru-laguntzak.

**8. artikulua.—*Ebaluatzeko irizpideak***

1. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saileko bi kidek eta BEAZ, S.A.U. sozietateko beste bi kidek osatutako ebaluazio-batzordeak aukeratuko ditu deialdi bakoitzean laguntza jasoko duten proiektuak.

2. Enpresek aurkeztutako eskabideen balorazioa honako irizpide hauen arabera egingo da:

2.1. Proiektuaren garapen maila (0-10 puntu bitartean): Proiektuaren garapen maila eta jarritako baliabide tekniko eta giza-baliabideen egokitzapena baloratuko dira.

2.2. Proiektuaren berrikuntza maila eta berrikuntza horren jatorria (0-20 puntu bitartean): Faktore hauek baloratuko dira: berrikuntzaren maila eta berrikuntza horren jatorria, lehiarako abantaila eta babes maila; eta koherentzia talde sustatzailearen lanbide-ibilbidearekin edo enpresaren estrategiarekin.

2.3. Proiektuaren taldea (0-20 puntu bitartean): Taldearen lidergoa eta kohesioa, arriskuak eta konpromisoak hartzea, arlo teknikoko zein kudeaketa arloko gaitasuna, eta proiektuari lotuta aurretik izandako esperientzia baloratuko dira.

2.4. Merkatua (0-25 puntu bitartean): Honako hauek baloratuko dira: Produktua edo zerbitzua merkaturatzeko epea, ezagutzak eta ahalmena, nazioarteko estrategia eta lehiarik dagoen eta merkatuan sartzeko oztoporik egon daitekeen.

2.5. Proiektuak duen eragina (0-25 puntu bitartean): Aurrez ikusten den fakturazio-bolumena, inbertsio bolumena eta enplegua, balizko merkatuaren banaketa geografikoa, eta beste eragileekin duen kolaborazio maila baloratuko dira.

**Artículo 6.—*Plazos y requisitos de ejecución***

1. Los gastos subvencionables definidos en el artículo anterior deberán realizarse entre el 1 de enero de 2015 y el 30 de septiembre de 2017.

Los gastos subvencionables deberán estar efectivamente pagados antes del 31 de diciembre de 2017.

2. En el caso de que la entidad beneficiaria sea una persona física o nueva empresa, la entidad colaboradora BEAZ, S.A.U. determinará en cada caso la conveniencia de participar en los talleres formativos organizados por dicha entidad, diseñados específicamente para el desarrollo del proyecto empresarial.

3. Una vez desarrollado el plan de empresa, en caso de proceder a la constitución y puesta en marcha de la nueva empresa, ésta deberá reunir los siguientes requisitos:

a) Tener su domicilio social y fiscal en Bizkaia.

b) Establecer en Bizkaia su centro productivo principal.

c) Constituirse como Sociedad Mercantil o Cooperativa. No se admitirá la creación de comunidades de bienes ni sociedades civiles.

4. La persona o empresa que promueve la nueva empresa innovadora debe participar en el capital social de la nueva empresa.

**Artículo 7.—*Cuantía de la subvención***

El porcentaje e importe máximo de subvención se establecerá en función de la puntuación obtenida en aplicación de los criterios de valoración:

| Puntuación obtenida en aplicación de los criterios de valoración | Porcentaje máximo de subvención (%) | Importe máximo de subvención (euros) |
|---|---|---|
| De 50 a 59 puntos | 80 | 20.000 |
| De 60 a 69 puntos | 80 | 30.000 |
| De 70 a 79 puntos | 100 | 40.000 |
| 80 puntos o más | 100 | 60.000 |

El importe de la subvención se redondeará a la baja a la unidad más próxima.

Independientemente del momento en el que se desarrolle la actuación, se podrá adjudicar la ayuda contra uno o varios ejercicios presupuestarios.

**Artículo 8.—*Criterios de valoración***

1. Una comisión evaluadora, formada por dos miembros del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y dos de BEAZ, S.A.U., seleccionará los proyectos que serán apoyados en cada convocatoria.

2. La valoración de las solicitudes presentadas por empresas se realizará atendiendo a los siguientes criterios:

2.1. Grado de construcción del proyecto (de 0 a 10 puntos): Se valorará el grado de desarrollo del proyecto y la adecuación de los medios técnicos y humanos dedicados al mismo.

2.2. Grado y origen de la innovación del proyecto (de 0 a 20 puntos): Se valorará el grado y origen de la innovación, la oportunidad de mercado, la ventaja competitiva y el grado de protección; y la coherencia con la trayectoria profesional del equipo promotor o la estrategia de la empresa.

2.3. Equipo del proyecto (de 0 a 20 puntos): Se valorará el liderazgo y la cohesión del equipo, la asunción de riesgo y compromiso, la capacitación técnica y en gestión y la experiencia previa relacionada con el proyecto.

2.4. Mercado (de 0 a 25 puntos): Se valorará el horizonte temporal de puesta en el mercado del producto o servicio, el conocimiento y capacidad de acceso al mercado, la visión internacional del proyecto y la existencia de competencia y posibles barreras de entrada.

2.5. Impacto del proyecto (de 0 a 25 puntos): Se valorará el volumen previsto de facturación, de inversión y de empleo, el alcance geográfico del mercado potencial, así como el grado de colaboración con otros agentes.

cve: BAO-BOB-2016a034

2.6. Proiektuaren beste ezaugarri batzuk (0-10 puntu bitartean): Proiektuko taldearen barruan gehienak emakumeak eta 30 urtetik beherako gazteak izatea baloratuko da, bai eta proiektuak garapen iraunkorrari egiten dion ekarpena ere.

3. Diruz lagundutako eskabideen gutxieneko kalitate bat bermatzeko, ondoko egoeretako bat, gutxienez, betetzen duten eskabideak baztertu egingo dira:

— 2.1 irizpidean 5 puntu baino gutxiagoko balorazioa.

— 2.2 irizpidean 10 puntu baino gutxiagoko balorazioa.

— Artikulu honetako 2. puntuan ezarritako irizpide guztien balorazioa egin ondoren, proiektuaren balorazio osoan 50 puntu baino gutxiago lortzea.

Irizpideren batean ezarrita baldin badago gutxieneko balorazio bat lortu behar dela, eta lortzen ez bada, horrek gainerako irizpideetan baloraziorik ez egitea ekarriko du.

**9. artikulua.—*Aurkeztu beharreko dokumentazioa***

1. Honako agiri hauek aurkeztu behar dira eskabidearekin batera:

a) Proiektuari buruzko memoria.

b) Hartzekodunaren fitxa, Bizkaiko Foru Aldundian banku-helbideratzeari buruzko datuak ez badaude edo bertan dauden datuak aldatu nahi badira.

Proiektuaren memoria eta hartzekodunaren fitxa Ekonomia eta Lurralde Garapeneko Sailaren webgunean dauden ereduen arabera aurkeztu behar dira (www.bizkaia.eus/Ekonomia eta Lurralde Garapena/Enpresa proiektu berriak garatzea).

c) Talde-sustatzailearen lanbide-historia eta/edo enpresaren ibilbidea, hala badagokio.

d) Pertsona fisikoak direnean: eskatzailearen errolda-ziurtagiria.

e) Enpresak direnean: Sozietatearen eraketari buruzko eskritura, behar bezala erregistratuta, eta, hala badagokio, kapital-gehikuntzari buruzko eskriturak.

f) Negozio-unitate berriak sustatzen dituzten lehendik diren enpresak, BEAZ, S.A.U.ren agiria, enpresaren barne ekintzailetzako prozesua berresten duena.

2. Proiektua egiten ari den bitartean eta amaitzen denean aurkeztu beharreko dokumentazioa:

a) Tarteko eta amaierako justifikazioei dagokien jarduketen memoria, bai bitartekoa, bai amaierako, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak azaltzen dituena, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren web orrian dauden ereduen arabera.

b) Egin beharreko lanen eskaintzei buruzko dokumentazioa, halakorik badago, artikulu honetan ezarritakoaren arabera: «38. artikulua. Gastua kontratatzeko arauak» delakoa.

c) Lagundutako jardueretako edozein egiteko kontratuak, behar bezala formalizatutakoak, halakorik behar izanez gero.

d) Egindako bideragarritasunari eta merkatuari buruzko azterlanak eta egindako txostenak, hala badagokio.

e) Marketin-plana, halakorik egonez gero.

f) Diru-laguntza jaso dezaketen gastuen fakturak eta dagozkion ordainketa-ziurtagiriak; faktura horiek legezko baldintzak bete behar dituzte.

Justifikaziorako fakturak bulego birtualaren bidez bidaltzen direnean, sistemak, automatikoki, diruz lagundutako jardueraren gastu-zerrenda sortuko du.

II. KAPITULUA

**2. ARLOA: ENPRESA BERRITZAILE BERRIAK**

**10. artikulua.—*Xedeak eta laguntzak***

2. arlo honen bitartez, enpresa berritzaile berriak sortzea sustatu nahi da Bizkaian.

Honako hauek eskaintzen dira arlo honetan:

— Enpresa berritzaileak sortu eta abiarazteko diru-laguntzak.

2.6. Otras características del proyecto (de 0 a 10 puntos): Se valorará que el equipo del proyecto esté compuesto mayoritariamente por mujeres, por jóvenes menores de 30 años y la contribución del proyecto al desarrollo sostenible.

3. Al objeto de asegurar una calidad mínima de las solicitudes apoyadas, se desestimarán aquellas solicitudes en las que concurra al menos una de las situaciones que se detallan a continuación:

— Valoración inferior a 5 puntos en el criterio 2.1.

— Valoración inferior a 10 puntos en el criterio 2.2.

— Obtención de una valoración total de proyecto inferior a 50 puntos tras la valoración de todos los criterios establecidos en el punto 2 del presente artículo.

La no obtención de la valoración mínima en alguno de los criterios que así lo tengan establecido, supondrá la no valoración del resto de los criterios.

**Artículo 9.—*Documentación a presentar***

1. Documentación a presentar junto con la solicitud:

a) Memoria del proyecto.

b) Ficha de parte acreedora, en el caso de que no consten los datos de domiciliación bancaria en la Diputación Foral de Bizkaia, o si se desea modificarlos.

La memoria del proyecto y la ficha de parte acreedora deberán presentarse de acuerdo con los modelos que figuran en la página web del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial (www.bizkaia.eus/Desarrollo Económico y Territorial/Desarrollo de proyectos empresariales innovadores).

c) Historial profesional del equipo de proyecto y/o trayectoria de la empresa, en su caso.

d) En el caso de personas físicas: certificado de empadronamiento de la persona solicitante.

e) En el caso de personas jurídicas: Escritura de constitución de la Sociedad, debidamente registrada y, en su caso, las escrituras de ampliación de capital.

f) En el caso de empresas existentes promotoras de nuevas unidades de negocio, documento emitido por BEAZ, S.A.U. que ratifique el proceso de intraemprendimiento de la empresa.

2. Documentación a presentar durante el desarrollo y a la finalización del proyecto:

a) Memoria de actuaciones correspondiente a la justificación intermedia y a la final, con indicación de las actividades realizadas y de los resultados obtenidos, de acuerdo con los modelos que figuran en la página web del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial.

b) Documentación relativa a las ofertas de los trabajos a realizar, cuando así proceda, según lo dispuesto en el «artículo 38. Reglas de contratación del gasto».

c) Contratos para la realización de cualquiera de las actividades apoyadas, debidamente formalizados, cuando así proceda.

d) Estudios de viabilidad y de mercado e informes realizados, en su caso.

e) Plan de marketing, en su caso.

f) Facturas de los gastos subvencionables realizados que cumplan los requisitos legales y sus correspondientes justificantes de pago.

Al enviar las facturas justificativas a través de la oficina virtual el sistema generará automáticamente una relación de gastos de la actividad subvencionada.

CAPÍTULO II

**ÁREA 2: NUEVAS EMPRESAS INNOVADORAS**

**Artículo 10.—*Objetivos y ayudas***

Mediante esta área 2 se pretende promocionar la creación de nuevas empresas innovadoras en Bizkaia.

Esta área ofrece:

— Subvenciones para la creación y puesta en marcha de nuevas empresas innovadoras.

cve: BAO-BOB-2016a034

— Aholkularitza zerbitzua BEAZ, S.A.U. foru sozietate publikoaren aldetik laguntza jasotzen duten enpresa berritzaile berriei, alderdi hauetan besteak beste:

• Proiektua abiarazteko beharrezkoa den finantziazioa bilatzea.

• Proiektuaren arlo ezberdinetan sustatzaileekin edo enpresekin elkarlanean arituko diren profesionalak edo espezialista independenteak bilatzea eta hautatzea.

• Enpresa edo jarduera berri bat abiarazi eta martxan jartzeko bazkideak bilatzea, baldin eta enpresek berariaz eskatzen badute.

**11. artikulua.—*Diruz lagundu daitekeen egitatea***

Hau izan daiteke diru-laguntza jaso dezakeen egitatea:

a) Enpresa berria eratzea.

b) Enpresa martxan jarri eta abiaraztea.

c) Bidaiak eta azoketan parte hartzea.

d) Jabetza intelektuala edo industriala babestea, erregistroak, ziurtagiriak eta homologazioak.

e) Bizkaian negozio-lokala errentan hartzea.

f) Marketin-plana.

g) Teknologo bat edo negozioa garatzeko pertsona baten kontratazioa.

**12. artikulua.—*Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak eta diru-laguntzaren zenbatekoa***

1. Eskudirutan ordaindutako kapital sozialaren %30erainoko diru-laguntzak emango dira, eta gehieneko muga enpresako 15.000 euro izango da.

2. Enpresarako marketin-plan bat egiteko %60rainoko diru-laguntzak emango dira, eta gehieneko muga 10.000 euro izango da.

3. Hiru kontzeptu hauek eragindako gastu hauetarako %60rainoko diru-laguntzak emango dira, eta gehieneko muga 25.000 euro izango da:

3.1. Enpresa martxan jarri eta abiaraztearen gastuak, bidaiak eta azoketan parte hartzea. Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa kontzeptu honengatik 15.000 euro izango da.

3.2. Jabetza intelektualaren edo industrialaren babes-gastuak, erregistroenak, ziurtapenenak eta homologazioenak. Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa kontzeptu honengatik 15.000 euro izango da.

Jabetza intelektuala eta/edo industriala babesteko aholkularitza diruz lagunduko da, bai eta jabetza horiek erregistratzea ere; horretarako, enpresaren barruan garatutako produktuen babesa izan behar da, eta produktu horiek ezin dute lehendik bestelako finantzaziorik jaso, ez arlo honetan, ez eta diru-laguntzetarako beste programa batzuetan ere.

3.3. Bizkaian negozio-lokalaren errentamenduaren errenta; gehienez ere, 15.000 euro izango da.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, beharrezkoa izango da eskaera aurkezten den egunean errentamendu-kontratua formalizatuta egotea.

Gehienez negozioko lokalaren urte bateko errentamendua lagunduko da diruz.

Gastu hori ez da diruz lagunduko zuzenbide publiko edo pribatuko entitateen bidez diruz laguntzen edo hobaritzen bada.

4. Teknologo bat edo negozioa garatzeko pertsona bat kontratatzeko %60rainoko diru-laguntzak emango dira, eta gehieneko muga 25.000 euro izango da:

Teknologoa erdi-mailako edo goi-mailako unibertsitateko titulua edo doktoretza duena da, eta I+G-n 2 urteko esperientzia egiaztatua du, hain zuzen, enpresa eskatzaileak garatzen edo garatu nahi dituen jardueretarako garrantzitsuak diren arloetan.

Teknologoak parte hartu beharko du proiektu jakin hauetan: teknologia garatzeko proiektu zehatzetan, baldin eta hauek enpresaren planean badaude.

— Asesoramiento por parte de la sociedad pública foral BEAZ, S.A.U. a las nuevas empresas innovadoras apoyadas en esta área, en los siguientes aspectos entre otros:

• Búsqueda de la financiación necesaria para la puesta en marcha del proyecto.

• Búsqueda y selección de profesionales o especialistas independientes que colaboren con las personas promotoras o empresas en las distintas áreas del proyecto.

• Búsqueda de socios y socias para el lanzamiento y la puesta en marcha de la nueva empresa o actividad, en caso de que las empresas lo soliciten expresamente.

**Artículo 11.—*Hecho subvencionable***

El hecho subvencionable consistirá en:

a) Constitución de la nueva empresa.

b) Puesta en marcha y lanzamiento de la nueva empresa.

c) Viajes y asistencia a ferias.

d) Protección de la propiedad intelectual o industrial, registros, certificaciones y homologaciones.

e) Arrendamiento de un local de negocio en Bizkaia.

f) Plan de marketing.

g) Contratación de un tecnólogo /tecnóloga ó de una persona desarrolladora del negocio.

1. La resolución contendrá, además de las ayudas concedidas y denegadas, una relación ordenada de aquellas solicitudes que cumplen las condiciones administrativas y técnicas establecidas en el presente Decreto foral para adquirir la condición de persona o entidad beneficiaria pero que no han sido estimadas por rebasarse la cuantía máxima del crédito correspondiente a la convocatoria de que se trate. Se indicará la puntuación otorgada a cada una de ellas en función de los criterios de valoración previstos.

2. En la resolución de otorgamiento podrán establecerse condiciones particulares cuando, por la naturaleza específica de los proyectos u otras circunstancias concurrentes, se estime conveniente, con el fin de aplicar y adecuar a cada caso lo dispuesto en el presente Decreto foral o en la normativa contemplada en la convocatoria correspondiente.

3. La resolución se notificará a las personas o entidades interesadas, de acuerdo a lo previsto en los artículos 58 y 59 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 32.—*Recursos***

1. La resolución agota la vía administrativa, y contra la misma se podrá interponer recurso potestativo de reposición ante el diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial, en el plazo de un (1) mes, a contar desde el día siguiente a aquel en que se reciba la correspondiente notificación, en los términos que establece la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico y Procedimiento Administrativo Común.

2. Asimismo, podrá interponerse Rrecurso contencioso administrativo ante la Jurisdicción Contencioso Administrativa que corresponda, en el plazo de dos (2) meses contados desde el día siguiente a aquél en que reciba la correspondiente notificación, en los términos contemplados por la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa.

No será posible simultanear ambos recursos.

**Artículo 33.—*Renuncia de la subvención***

1. En caso de renuncia a la subvención de alguna de las personas o entidades beneficiarias, el órgano concedente podrá acordar la concesión de la subvención a las personas o entidades solicitantes siguientes en orden de puntuación, siempre y cuando se haya liberado crédito suficiente para atender las solicitudes de que se trate.

2. El órgano concedente comunicará esta opción a las personas o entidades interesadas, a fin de que acepten la propuesta de subvención en el plazo improrrogable de diez días. Una vez aceptada la propuesta por las personas o entidades solicitantes, el órgano administrativo dictará el acto de concesión y procederá a su notificación.

cve: BAO-BOB-2016a034

**34. artikulua.—*Diru-laguntza ordaintzea***

1. Diru-laguntzak eman eta ordaindu aurretik, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak edo, hala badagokio, entitate laguntzaileak egiaztatu egingo dute gastua diru-laguntza jaso dezakeen egitatea ote den eta zenbatekoa diruz lagundutako egitate eta gastuei ondo doituta dagoen edo ez.

2. Diru-laguntzaren betebeharra aitortu eta hura ordaindu aurretik, entitate onuradunek zerga-betebeharrak eta, hala badagokio, Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatuko da. Egiaztapen horren ondorioz, ikusten bada entitate onuradunak ez dituela egunean zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, dekretu honen «42. artikulua. Ez-betetzeak» delakoan xedatzen den prozedura abiaraziko da, baldintzak ez betetzeagatik.

3. BEAZ, S.A.U. sozietatearen bitartez ordainduko dira 1. arloko diru-laguntzak. Lehenengo urtekoari dagokion ordainketa aurretiaz egingo da. Beste ordainketa guztiak proiektuaren gauzatzemailaren arabera egingo dira.

4. Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak zuzenean ordainduko dizkio entitate onuradunari dagozkion 2. arloko diru-laguntzak.

5. Diru-laguntzaren azken justifikazioari dagokionez, emandako diru-laguntzak aurretiaz ordainduko dira, pertsona edo entitate onuradunei bermerik eskatu gabe.

**Artículo 34.—*Pago de la subvención***

1. El otorgamiento y pago de las subvenciones se efectuará previa comprobación por el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial o, en su caso, la entidad colaboradora, de que el gasto tiene la consideración de hecho subvencionable y de que el importe económico se ajusta a los hechos y gastos subvencionados.

2. Previo al reconocimiento de la obligación y al pago de la subvención, se comprobará que las entidades beneficiarias se encuentran al corriente de sus obligaciones tributarias y, en su caso, frente a la Seguridad Social. Si como consecuencia de la comprobación efectuada resulta que la entidad beneficiaria no se halla al corriente de sus obligaciones tributarias y de Seguridad Social se iniciará el procedimiento de incumplimiento establecido en el «artículo 42. Incumplimientos» del presente Decreto.

3. Las subvenciones correspondientes al área 1 se abonarán a través de BEAZ, S.A.U. El pago de la primera anualidad se realizará de forma anticipada. El resto de los pagos se realizarán en función de la ejecución del proyecto.

4. Las subvenciones correspondientes al área 2 serán abonadas directamente a la entidad beneficiaria por el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial.

5. Respecto de la justificación final de la subvención se procederá al abono anticipado de las ayudas concedidas sin exigir garantías a las personas o entidades beneficiarias.

## V. TITULUA
## DIRU-LAGUNTZAK KUDEATU ETA JUSTIFIKATZEA

**35. artikulua.—*Erakunde onuradunen beste betekizun batzuk***

1. Pertsona eta entitate onuradunek Ekonomia eta Lurralde Garapeneko Saileko Enpresak Sustatzeko Zerbitzuari jakinarazi behar dizkiote enpresan alderdi hauek direla-eta gertatzen diren aldaketa guztiak: akziodunen osaera, helbide soziala, enpresaren izena, eta abar.

2. Pertsona eta entitate onuradunek jasotako funtsen erabilerari buruzko frogagiriak gorde behar dituzte, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontroleko jardueren xede izan daitezke-eta.

3. Erakunde onuradunek bete behar dituzte, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 41. artikulua dela bide, entitate onuradunei eta diru-laguntzaren xedeari lotutako hirugarrenei dagozkien finantza-kontroleko organoekin lankidetzan aritzeko dituzten betebeharrak.

**36. artikulua.—*Informazio osagarria eskatzea***

Dena dela, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak eta BEAZ, S.A.U. entitate laguntzaileak enpresa eskatzaileari beharrezkotzat jotzen dituen agiri edota informazio osagarriak eskatu ahal izango dizkio, aurkeztutako eskabidea ondo ulertu eta ebaluatzeko eta beraren jarraipena egin ahal izateko; agiriak eskatzen diren unean zehaztutako epean eman beharko dira. Era berean, Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak eta BEAZ, S.A.U. entitate laguntzaileak entitate eskatzaileari bisitak eskatu ahal izango dizkio proiektua egin bitartean eta amaitu ondoren, jarraipen egokia egiteko.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailaren jardueraren eragina ebaluatzeko, Sail horrek eta BEAZ, S.A.U. entitate laguntzaileak enpresari proiektuak iraun bitartean zein proiektu amaitu eta osteko urteetan enpresaren bilakaera adierazten duten adierazle ekonomikoak eta enpleguari buruzko adierazleak nahiz proiektuak enpresan izandako eraginari buruzkoak aurkezteko eskatu ahal izango dio. Adierazle horiek aurkezteko epea, eskatzen zaizkion unean zehaztuko da.

**37. artikulua.—*Azpikontratazioa***

1. Diruz laguntzen diren zerbitzu edo proiektuetako jardueren %100eraino azpikontratatu ahalko da, baldin eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako baldintzak eta debekuak errespetatzen badira.

## TÍTULO V
## GESTIÓN Y JUSTIFICACIÓN DE LAS SUBVENCIONES

**Artículo 35.—*Otras obligaciones de las entidades beneficiarias***

1. Las personas y entidades beneficiarias deberán comunicar al Servicio de Promoción Empresarial del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, todos los cambios que se produzcan en la empresa: composición de su accionariado, domicilio social, nombre de la empresa, etc.

2. Las personas y entidades beneficiarias deberán conservar los documentos justificativos de la aplicación de fondos recibidos, incluídos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de las actuaciones de comprobación y control.

3. Las entidades beneficiarias deberán cumplir las obligaciones de colaboración que, en virtud del artículo 41 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, corresponde a las personas beneficiarias y a las terceras personas relacionadas con el objeto de la subvención, con respecto a los órganos que tengan atribuidas funciones de control financiero.

**Artículo 36.—*Requerimiento de información complementaria***

En todo caso, el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y la entidad colaboradora BEAZ, S.A.U. podrán requerir a la entidad solicitante cuanta documentación y/o información complementaria considere necesaria para la adecuada comprensión, evaluación y seguimiento de la solicitud presentada; documentación que deberá aportar en el plazo que se le especifique en el momento en el que le sea requerida. De igual modo, el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial y la entidad colaboradora BEAZ, S.A.U. podrán requerir a la entidad solicitante visitas en el transcurso y a la finalización del proyecto, para su adecuado seguimiento.

Para la evaluación del impacto de la actividad del Departamento de Desarrollo Económico y Territorial, éste o la entidad colaboradora BEAZ, S.A.U. podrán requerir a la empresa durante el proyecto y los años posteriores a la finalización del mismo la aportación de indicadores económicos y de empleo de la evolución de la empresa y del impacto del proyecto en la misma, que deberá aportar en el plazo que se le especifique en el momento en el que le sea requerida.

**Artículo 37.—*Subcontratación***

1. Se podrá subcontratar hasta el 100% de las actividades que integren los servicios o proyectos subvencionados siempre y cuando se respeten los requisitos y prohibiciones establecidos en el artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

cve: BAO-BOB-2016a034

2. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, diru-laguntzaren xedea gauzatzeko agindua jasotzen duten entitateek honako hauek bete behar dituzte: lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu behar dituzte entitateek, beren lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu behar dute eratzen diren batzordeetan eta lan taldeetan.

3. Diru-laguntzaren xedeko jardueraren zati baten burutzapena beste batekin hitzartzen duenean, eta jarduera horrek diru-laguntzaren zenbatekoaren %20 gainditzen duenean, eta, horrez gainera, azpikontratazioa 60.000 eurotik gorakoa denean, entitate onuradunak azpikontratazio hori egiteko baimena eskatu beharko dio Bizkaiko Foru Aldundiari. Horretarako, azpikontratazioaren baldintza nagusiak jakinarazi beharko dizkio, bai eta jardueraren burutzapena zein entitaterekin hitzartuko duen ere.

4. Enpresak Sustatzeko eta Ekonomia Garatzeko zuzendari nagusiak ebazpen baten bidez ebatziko du eskabide hori, hamabost (15) eguneko epearen barruan. Epe hori amaitutakoan ebazpen adierazirik eman ez bada, eskabidea baietsitzat joko da.

**38. artikulua.—*Gastua kontratatzeko arauak***

Pertsona edo entitate onuradunak obrak egiteko 50.000 euroko gastua baino handiagoa egin behar badu, edota ekipo-ondasunak hornitzeko edo aholkularitza-enpresek zein laguntza teknikoko enpresek zerbitzua emateko 18.000 euroko gastua baino handiagoa egin behar badu, zerbitzua emateko edo ondasuna emateko konpromisoa kontratatu aurretik, entitate horrek gutxienez hiru hornitzaileren eskaintzak eskatu izana justifikatu beharko du. Baldintza hori ez da bete beharrik izango diruz laguntzeko gastuen ezaugarri bereziak direla-eta merkatuan ondasuna hornitzeko edo zerbitzua emateko nahikoa entitate ez dagoenean, edota gastu hori diru-laguntza eskatu aurretik egin denean.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean xedatutakoaren arabera, kontratazen diren jardueretan, honako hauek bete behar dituzte: lege horretan ezarritako printzipio orokorrak errespetatu behar dituzte entitateek, beren lanaren barruko estatistikak genero ikuspegiaren arabera egokitu beharko dituzte, ez dute hizkera sexistarik erabiliko eta emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua bermatu behar dute eratzen diren batzordeetan eta lan taldeetan.

**39. artikulua.—*Ebazpena aldatzea***

1. Pertsona edo entitate onuradunak Enpresak Sustatzeko Zerbitzuari jakinarazi behar dio diru-laguntza emateko orduan kontuan hartu den edozein alderdi objektibo edo subjektibok aldaketarik izan badu.

2. Diru-laguntza ematen duen organoak diru-laguntza emateari buruzko ebazpena alda dezake, bere kabuz, interesdunari entzun eta gero eta funtsak erabili aurretik, diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzearen ondorioz lortu nahi zen interes publikoa lortzea oztopatu edo eragozten denean eta pertsona edo entitate onuradunari kalte ekonomikorik ekartzen ez dionean.

3. Pertsona edo entitate onuradunek, diruz lagundutako jarduera egiteko epea amaitu baino lehen, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu ahal izango diote diruz lagundutako jardueraren ebazpenean aldaketa batzuk egin ahal izateko, hain zuzen, hauek: ezarritako epeak luzatzea, emandako zenbatekoa murriztea edo jarduera osatzen duten ekintzak aldatzea. Diru-laguntzen emaileak baimenduko ditu aldaketok ustekabeko arrazoietan edo jarduketaren xedearen onerako beharrezko arrazoietan oinarrituta daudenean eta betiere diru-laguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta beste inoren eskubideen kalterako ez bada. Nolanahi ere, beren beregiko ebazpenaren bidez egin beharko da.

4. Diru-laguntzaren pertsona edo entitate onuradunak aurkeztutako justifikazioan adierazten badu ebazpena aldatzea eragin zezaketen aldaketak egon direla diru-laguntza emateko orduan

2. Las entidades a las que se les encomiende la ejecución del objeto de la subvención, de conformidad con lo previsto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de Igualdad entre mujeres y hombres, deberán respetar los principios generales previstos en la misma; adecuar las estadísticas que formen parte de su trabajo a una perspectiva de género; realizar un uso no sexista del lenguaje y garantizar una representación equilibrada entre mujeres y hombres en la comisión y equipos de trabajo que se constituyan.

3. Cuando la actividad objeto de subvención sea subcontratada y dicha actividad exceda del 20% del importe de la subvención, y, además, la subcontratación lo sea por un precio superior a 60.000 euros, la entidad beneficiaria deberá solicitar a la Diputación Foral de Bizkaia que le autorice la celebración de dicha subcontratación, a cuyo efecto deberá indicar las principales condiciones de la misma, así como la entidad con la que concertará la ejecución de la actividad.

4. Esta solicitud será resuelta mediante resolución del Director General de Promoción Empresarial y Desarrollo Económico en un plazo de quince (15) días, entendiéndose estimada para el supuesto en que no se haya resuelto expresamente al término de dicho plazo.

**Artículo 38.—*Reglas de contratación del gasto***

Cuando la persona o entidad beneficiaria tenga que incurrir en gastos superiores a 50.000 euros en el supuesto de coste por ejecución de obra, o de 18.000 euros en el supuesto de suministro de bienes de equipo o prestación de servicios por empresas de consultoría o asistencia técnica, deberá justificar el haber solicitado como mínimo tres ofertas de diferentes personas o entidades proveedoras, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

En las actuaciones que se contraten, de conformidad con lo previsto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad entre mujeres y hombres, deberán respetar los principios generales previstos en la misma; adecuar las estadísticas que formen parte de su trabajo a una perspectiva de género; realizar un uso no sexista del lenguaje y garantizar una representación equilibrada entre mujeres y hombres en la comisión y equipos de trabajo que se constituyan.

**Artículo 39.—*Modificación de la resolución***

1. La persona o entidad beneficiaria tendrá la obligación de comunicar al Servicio de Promoción Empresarial las modificaciones que, en su caso, pudieran producirse en relación con cualquier circunstancia tanto objetiva como subjetiva, que hubiera sido tenida en cuenta para la concesión de la subvención.

2. El órgano concedente podrá modificar de oficio la resolución de concesión, previa audiencia de la parte interesada y antes de la aplicación de los fondos, cuando, habiéndose advertido una alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, éstas impidan o dificulten la consecución del interés público perseguido y no se causen perjuicios económicos a la persona o entidad beneficiaria.

3. Las personas o entidades beneficiarias, igualmente, podrán solicitar al órgano concedente, antes de que concluya el plazo para la realización de la actividad subvencionada, modificaciones de la resolución de concesión que supongan ampliación de los plazos fijados, reducción del importe concedido o alteración de las acciones que se integran en la actividad. Dichas modificaciones serán autorizadas por el órgano concedente cuando se deban a circunstancias imprevistas, o sean necesarias para el buen fin de la actuación, siempre que no se altere el objeto o finalidad de la subvención y no se perjudiquen derechos de terceras personas. En todo caso, deberá realizarse por resolución expresa.

4. Cuando la persona o entidad beneficiaria ponga de manifiesto, con ocasión de la justificación, que se han producido alteraciones de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión

cve: BAO-BOB-2016a034

kontuan hartutako baldintzetan (eta ez bada egin aldaketak onartzeko aurretiazko administrazio-baimenaren izapidea), diru-laguntza eman duen organoak aurkeztutako justifikazioa onartu ahalko du; hala ere, horrek ez du salbuesten pertsona edo entitate onuraduna maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren arabera izan ditzakeen zehapenetatik.

5. 1. arloan, entitate onuraduna lehendik dagoen entitate bat izan daiteke, enpresa edo gizarte entitate berritzaile berri bat sustatzen duena, eta burutzapen-epean zehar, enpresa edo gizarte entitate berritzaile berria era daiteke. Halakoetan, erabat justifikatuta dago eratzen den enpresa edo gizarte entitate berritzaile berriari, diru-laguntza ematearen ondorioz, eskuratutako eskubide eta betebeharren subrogazioa ahalbidetzea.

Subrogazio eskabidea eredu normalizatua jarraituz aurkeztu beharko zaio entitate emaileari, honek gertatzen diren inguruabarrak aztertu ondoren, subrogaziorako baimenari buruzko ebazpena eman dezan.

Subrogazioa onetsi ondoren, ez da beharrazkoa izango diru-laguntzen norgehiagokako araubideko emakidarako eskabideen lehentasuna berriro aztertzea.

Diru-laguntza justifikatzeko, entitate onuradunaren izeneko zein subrogatutako entitatearen izeneko fakturak onartuko dira.

Subrogatutako entitateak dekretu honen 1. arlorako ezarritako baldintzak bete beharko ditu eta, ondorio guztietarako, erantzulea izango da administrazio publikoaren aurrean.

### 40. artikulua.—*Justifikazioa egiteko epea*

1. Honako hauek izango dira burututako gastuen fakturak aurkezteko azken egunak:

— 1. arloa: 2017ko urriaren 31.

— 2. arloa: 2016ko ekainaren 16a eta 2017ko urtarrilaren 31.

2. Honako hauek izango dira egindako gastuen ordainketa-agiriak aurkezteko azken egunak:

— 1. arloa: 2018ko urtarrilaren 31.

— 2. arloa: 2016ko ekainaren 16a eta 2017ko urtarrilaren 31.

3. Justifikazioa ez bada ezarritako epean aurkezten, diru-laguntza itzultzeko eskatuko da, eta maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauan ezarritako gainerako erantzukizunak ere eskatuko dira. Izan ere, foru arau horretan arautzen da Foru Administrazioak emaniko diru-laguntzen araubide juridiko orokorra.

### 41. artikulua.—*Diru-laguntzak justifikatzeko era*

1. Diru-laguntzak, 1. arlokoak direnean, dekretu honen «9. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa» delakoan eta 2. arlokoak direnean «15. artikulua. Aurkeztu beharreko dokumentazioa» delakoan zehaztutakoaren arabera justifikatu beharko dira.

2. 50 eurotik gorako fakturak baino ez dira onartuko.

## VI. TITULUA

## DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK

### I. KAPITULUA

### DIRU-LAGUNTZAK ITZULTZEA

### 42. artikulua.—*Ez-betetzeak*

Honako kasu hauetan, baldintzak ez direla bete ulertuko da: laguntzak jaso dituzten pertsonek edo onuradunek dekretu honetan, diru-laguntza emateko ebazpenean edo aplikatu beharreko gainerako arautegian ezarritako baldintzetako bat betetzen ez dutenean, bai eta Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra ezartzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan ezartzen diren kasuetan ere.

de la misma que hubieran podido dar lugar a la modificación de la resolución, habiéndose omitido el trámite de autorización administrativa previa para su aprobación, el órgano concedente podrá aceptar la justificación presentada, sin que ello exima a la persona o entidad beneficiaria de las sanciones que puedan corresponder con arreglo a la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

5. En el área 1 la entidad beneficiaria puede ser una persona física o una entidad existente que promueva una nueva empresa y, durante el plazo de ejecución, puede constituirse la nueva empresa. En estos casos está totalmente justificado permitir la subrogación de los derechos y deberes que, como consecuencia del otorgamiento de la subvención, adquiere la entidad beneficiaria a la nueva empresa que se constituye.

La solicitud de subrogación deberá ser presentada al órgano concedente según modelo normalizado, para que éste, una vez analizadas las circunstancias concurrentes, resuelva sobre la autorización de la subrogación.

Aprobada la subrogación, no procederá revisar la prelación de solicitudes que dieron lugar al otorgamiento de las subvenciones en concurrencia competitiva.

Para la justificación de la subvención, se admitirán facturas a nombre tanto de la entidad beneficiaria como de la subrogada.

La empresa subrogada deberá cumplir los requisitos establecidos para el área 1 en el presente Decreto y será la responsable ante la Administración Pública, a todos los efectos.

### Artículo 40.—*Plazo de justificación*

1. Las fechas límite para la presentación de facturas justificativas de los gastos realizados serán las siguientes:

— Área 1: El 31 de octubre de 2017.

— Área 2: El 16 de junio de 2016 y el 31 de enero de 2017.

2. Las fechas límite para presentación de los justificantes de pago de los gastos realizados serán las siguientes:

— Área 1: El 31 de enero de 2018.

— Área 2: El 16 de junio de 2016 y el 31 de enero de 2017.

3. La falta de presentación de la justificación en el plazo establecido llevará consigo la exigencia de reintegro y demás responsabilidades establecidas en la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

### Artículo 41.—*Forma de justificación de las subvenciones*

1. Las subvenciones deberán justificarse según lo establecido en el «artículo 9. Documentación a presentar», en el caso del área 1, y en el «artículo 15. Documentación a presentar», en el caso del área 2, del presente Decreto.

2. Únicamente se admitirán facturas de importe superior a 50 euros.

## TÍTULO VI

## REINTEGRO DE SUBVENCIONES E INFRACCIONES ADMINISTRATIVAS

### CAPÍTULO I

### REINTEGRO DE SUBVENCIONES

### Artículo 42.—*Incumplimientos*

Se considerará que existe incumplimiento, cuando las personas o entidades beneficiarias de las ayudas no cumplan las condiciones establecidas en el presente decreto, o en la resolución de otorgamiento, o las establecidas en las demás normativas de aplicación, así como en los supuestos determinados en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

cve: BAO-BOB-2016a034

**43. artikulua.—*Diru-laguntza entitate onuradunak bere ekimenez itzultzea***

1. Borondatezko itzulketa da pertsona edo entitate onuradunak berak, Administrazioaren inolako errekerimendurik gabe, egiten duena.

2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatuko ditu, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta pertsona edo entitate onuradunak itzulketa benetan egin duen unera arte.

3. Foru diru-laguntza onuradunak berak itzultzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren eredu ofizialaren araberako ordainketa-gutuna erabili behar du; gutun hori Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailean eskuratu ahal izango da (Orueta Apezpikua kalea, 6. Bilbo).

**44. artikulua.—*Ez-betetzeak mailakatzeko irizpideak***

1. Aldi berean beste laguntza batzuk jasotzearen ondorioz gehiegizko finantziazioa gertatzen bada —maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan jasotako kasua—, behar denaren gainetik jasotako kopurua itzuliko da (kopuru horri dagokion berandutze-interesa ezarriko zaio).

2. Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako aurrekontu baten gaineko ehuneko bat aplikatuta lortzen denez, behin betiko kostu osoa hasierako aurrekontua baino txikiagoa bada, honako hau itzuli behar da: hasierako aurrekontuaren gaineko ehuneko hori aplikatuta lortutako kopuruari behin betiko kostua kentzearen ondorioz finantziazio publikoan sortutako soberakina.

3. Baldintzetako bat edo batzuk ez betetzeak edo epearen barruan jardueraren zati bat bakarrik egiteak (betiere, zalantza barik egiaztatzen bada onuradunak konpromisoak betetzeko asmoa duela) diru-laguntzaren zati bat bakarrik ordaintzea ekarriko du edo, hala badagokio, diru-laguntzaren zati bat itzuli behar izatea. Itzulketa hori kalkulatzeko, jarduera osotik hartutako zatiaren proportzio bera erabiliko da.

BEAZ, S.A.U. sozietateari badagokio funtsak banatzea eta justifikatutako gastua aurrekontuko gastua baino txikiagoa izateagatik itzultzeko espediente bat ebatzi bada, ebazpen hori pertsona edo entitate onuradunari eta entitate laguntzaileari jakinaraziko zaie, azken entitate horrek geratutako funtsak itzul ditzan. Kasu horretan, ez da interesik aplikatuko.

«42. Artikulua». Ez-betetzeak kasuetan, pertsona edo entitate onuradunak, hala badagokio, jaso dituen baina justifikatu ez dituen kopuruak eta haiei dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko ditu.

4. Administrazioak eginiko egiaztapen edo finantza-kontrol baten ondorioz ikusten bada, eginiko gastuetako batzuk edo guztiak ordaindu gabe daudela, diru-laguntza jaso ondoren, eta hartzekodunek eskatzeko eskubidea dutela, itzulketa eskatuko da, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta. Kasu horretan, diru-laguntza jaso dezaketen egotzitako gastu guztietatik ordaindu gabeko gastuek osatzen duten proportzioaren araberakoa izango da diru-laguntzaren itzulketa.

II. KAPITULUA

**ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK DIRU-LAGUNTZEN ARLOAN**

**45. artikulua.—*Zehapen-prozedura***

Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan ezarritakoa bete beharko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legeak xedatutako zehapen-prozedura aplikatuko da.

**Artículo 43.—*Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria***

1. Se entiende por devolución voluntaria aquella que es realizada por la persona o entidad beneficiaria sin el previo requerimiento de la Administración.

2. Cuando se produzca la devolución voluntaria la Administración calculará los intereses de demora de acuerdo con lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, y hasta el momento en el que se produjo la devolución definitiva por parte de la persona o entidad beneficiaria.

3. La devolución de la subvención a instancia de la propia beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago, según modelo oficial de la Diputación Foral de Bizkaia, que se expedirá en el Departamento de Desarrollo Económico y Territorial (calle Obispo Orueta, 6. Bilbao).

**Artículo 44.—*Criterios de graduación de incumplimientos***

1. En el supuesto de sobrefinanciación, por concurrencia con otras ayudas, contemplado en el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, procederá el reintegro por la cantidad excedida, a la que se aplicará el correspondiente interés de demora.

2. Dado que la subvención concedida se obtiene de la aplicación de un porcentaje sobre el presupuesto presentado por la persona solicitante, cuando el coste total definitivo sea inferior al presupuesto inicial, será objeto de reintegro el eventual exceso de financiación pública que se produzca por diferencia entre los importes obtenidos por aplicación del citado porcentaje sobre el presupuesto inicial y el coste total definitivo.

3. El cumplimiento parcial de las condiciones o la realización en plazo de sólo una parte de la actividad, siempre que se acredite una actuación de la persona beneficiaria inequívocamente tendente a la satisfacción de los compromisos, dará lugar al pago parcial de la subvención o, en su caso, al reintegro también parcial aplicando la proporción en que se encuentre la actividad realizada respecto de la total.

Cuando la distribución de los fondos se realice por BEAZ, S.A.U., y se hubiera resuelto un expediente de reintegro porque el gasto justificado fuera inferior al presupuestado, se comunicará dicha resolución a la persona o entidad beneficiaria y a la entidad colaboradora para que ésta última proceda a la devolución de los fondos excedentes que correspondan, sin aplicación de intereses.

En los supuestos del «artículo 42. Incumplimiento», la persona o entidad beneficiaria deberá reintegrar, en su caso, las cantidades recibidas y no justificadas, junto con el interés de demora.

4. Si en la realización de una comprobación o control financiero por los servicios de la Administración se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, siendo exigibles por los respectivos acreedores, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos no pagados respecto al total de gastos subvencionables imputados.

CAPÍTULO II

**INFRACCIONES ADMINISTRATIVAS EN MATERIA DE SUBVENCIONES**

**Artículo 45.—*Procedimiento sancionador***

Resultará de aplicación lo previsto en el Título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

Será de aplicación el procedimiento sancionador previsto en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

cve: BAO-BOB-2016a034

AZKEN XEDAPENAK

**Lehenengoa.—*Arauen garapena***

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio honako dekretu hau garatzeko beharrezkotzat jotzen dituen xedapen guztiak emateko, bai eta aurrekontuko diru-baliabideak amaitu ezean deialdi berriak egiteko eta subrogazio-eskabideak ebazteko ere.

**Bigarrena.—*Aurrekontuko diru-hornidura***

Deialdi honetan eman daitezkeen diru-laguntzak beheko aurrekontuko partida eta diru-horniduren kontura emango dira. Guztira, bi milioi seiehun eta hogeita hamar mila euro (2.630.000,00 euro) dira, gutxi gorabehera; baina, kopuru hori alda daiteke, aurrekontuen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera.

— 1. arloko aurrekontua, guztira, milioi bat eta bostehun mila euro (1.500.000 euro) da, honelaxe banatuta:

*Proiektu zenbakia: 2008/0216*

| 743.00/720.103/08/03 | |
|---|---|
| Ekialdia | Zenbatekoa (€) |
| 2016 | 642.160 |
| 2017 | 350.000 |
| GUZTIRA | 992.160 |

| 769.00/720.103/08/03 | |
|---|---|
| Ekialdia | Zenbatekoa (€) |
| 2016 | 373.400 |
| 2017 | 134.440 |
| GUZTIRA | 507.840 |

— 2. arloko aurrekontua, guztira, milioi bat ehun eta hogeita hamar mila euro (1.130.000 euro) da, honelaxe banatuta:

*Proiektu zenbakia: 2008/0215*

| 443.00/720.103/08/03 | |
|---|---|
| Ekialdia | Zenbatekoa (€) |
| 2016 | 1.130.000 |
| GUZTIRA | 1.130.000 |

Aurrekontuetako partidari esleitutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira. Onartzen diren eskabideen arabera —pertsona eta entitate onuradunak zein diruz lagundutako gastuen kontzeptuak era askotako izaera juridikotakoak izan daitezkenez gero—, aurrekontuko partidei esleitutako baliabide ekonomikoak aurrekontuko kapitulu bereko beste partiden artean egokitu ahal izango dira, eta horretarako ez da beharrezkoa izango dekretu hau aldatzea.

Horrez gainera, eskabide guztiak ebatzi ondoren aurrekontuaren gehieneko mugara heltzen ez bada, sobera geratutako zenbatekoa gastatzeko baimena ezeztatu egingo da, eta horretarako ez da beharrezkoa izango dekretu hau aldatzea.

Bestalde, aurrekontuko zuzkiduren zenbateko osoari beste kopuru osagarri bat gehitu ahal izango zaio, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuko 41.2 eta 43. artikuluetan ezarritakoaren arabera (dekretu horren bidez, Diru-laguntzen Erregelamendua onesten da, maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena). Kopuru osagarriaren zenbatekoa 600.000 eurokoa izango da, gehienez.

DISPOSICIONES FINALES

**Primera.—*Desarrollo normativo***

Se faculta al diputado foral de Desarrollo Económico y Territorial a dictar cuantas disposiciones considere necesarias para el desarrollo del presente Decreto foral, a la apertura de nuevas convocatorias en el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias y a resolver solicitudes de subrogación.

**Segunda.—*Dotación presupuestaria***

Las subvenciones que puedan otorgarse en la presente convocatoria, se efectuarán con cargo a las siguientes partidas y dotaciones presupuestarias relacionadas a continuación por un total de dos millones seiscientos treinta mil euros (2.630.000,00 euros), de caracter estimativo, y sin perjuicio de que las mismas puedan ser modificadas de conformidad con la normativa presupuestaria vigente:

— El total del presupuesto del área 1 asciende a un millón quinientos mil euros (1.500.000 euros), distribuido de la siguiente forma:

*N.º de Proyecto: 2008/0216*

| 743.00/720.103/08/03 | |
|---|---|
| Ejercicio | Importe (€) |
| 2016 | 642.160 |
| 2017 | 350.000 |
| TOTAL | 992.160 |

| 769.00/720.103/08/03 | |
|---|---|
| Ejercicio | Importe (€) |
| 2016 | 373.400 |
| 2017 | 134.440 |
| TOTAL | 507.840 |

— El total del presupuesto del área 2 asciende a un millón ciento treinta mil euros (1.130.000 euros), distribuido de la siguiente forma:

*N.º de Proyecto: 2008/0215*

| 443.00/720.103/08/03 | |
|---|---|
| Ejercicio | Importe (€) |
| 2016 | 1.130.000 |
| TOTAL | 1.130.000 |

Las cantidades asignadas a la partida presupuestaria, tienen un carácter estimativo. En función de las solicitudes que resulten aprobadas, dada la diferente naturaleza jurídica de las personas y entidades beneficiarias y los diferentes conceptos de gastos subvencionados, los recursos económicos asignados a las partidas presupuestarias podrán readecuarse entre las partidas del mismo capítulo presupuestario, sin que sea obligatorio modificar el presente Decreto.

Asimismo, si una vez resueltas todas las solicitudes no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante sin que sea obligatorio modificar el presente Decreto.

Por otro lado, la cuantía total de las diferentes dotaciones presupuestarias podrá ser ampliada en una cantidad adicional, según lo establecido en los artículos 41.2 y 43 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el reglamento de subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo. El importe adicional máximo será de 600.000 euros.

cve: BAO-BOB-2016a034

**Hirugarrena.—*Indarrean sartzea***

Foru dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2016ko otsailaren 16an.

Ekonomi eta Lurralde Garapena
Sustatzeko foru diputatua,
IMANOL PRADALES GIL

Ahaldun Nagusia,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-181)

**Tercera.—*Entrada en vigor***

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia».

En Bilbao, a 16 de febrero de 2016.

El diputado foral de Desarrollo Económico
y Territorial,
IMANOL PRADALES GIL

El Diputado General,
UNAI REMENTERIA MAIZ

(I-181)

cve: BAO-BOB-2016a034